

Euskal idazle bizidunak itzultzeaz

–Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa*
itzultzeak zer irakatsi didan–

ANGEL ERRO

Itzulpen bat ez dago amaituta entregatzen den arte. Are, orduan ere ez dagoke amaituta guztiz, ordurako argitaletxearen eskutan dagoen arren, arduraz jokatzeko bada testua oraindik argitaletxeko zuzentzaileak ikuskatu eta, kasurik onenean, zuzendu beharko dituelako bidean utzitako akats dagoeneko ikusezinak. Batzuetan, fase horren ostean ere itzulian datorkio testua itzultzaileari, funtsean hark apaltasuna ikas dezan nire ustez.

Gauzak hala, logikoa da itzultzaileak bere lanaren behin-behinekotasun sentipena izatea. Edozer testuk, edozer esaldik, hamaika bertsio onartzen ditu, eta handiuste hutsa dirudi norberak aukeratu duen hori guztietan onena edo, are, posible den bakarra dela sinesteak. Halere, itzultzaileak disimulatu ohi du, irakurleen aurrean (irakurleekin topatzeko izan ditzakeen aukera bakanetan, dela zuzenean, dela zeharka, hala nola elkarrizketa edo mahai-inguruetan) eta batez ere itzuli beharreko egilearen aurrean, hura bizirik badago eta itzultzailearekin trataturik badu. Azken bi gauza horiek, egile bizidun eta gertukoak itzuli beharra, oso gertagarria zaio euskal itzultzaileen batezbestekoari, gure erdaretako batekin lan eginez gero behintzat. Diglosiak jotako gure gizarte honetan, halako itzultzaileon diru-iturri ez txikia euskal idazleek beren elebitasun osoarekiko izan ohi duten konfiantza faltan (eta baita itzulpena lan minorra eta subalternoa delako ustean ere?) oinarritzen da. Hortaz, itzultzaileoi dagokigu, hitzarmenez ez bada konbentziorik bai behintzat, ziurtasun handiaren erakustaldia egitea munduaren aurrean.

Neurri batean, esan genezake idazleei konfiantza emateagatik kobratzen dugula itzultzaileok, oker gaudela esateko, egileek buruan zuten (edo gaztelaniaz idaztera edukiko luketen) hitz edo adierazpide zehatzarekin asmatu ez dugula esateko konfiantza eragiteagatik, gaztelania (ona)

badakitelako sentipena berreskurazteagatik; hargatik, nire itzulpen-eskarmentuan ez da betetzen Nuria Barriosek *La impostora. Cuaderno de traducción de una escritora* saiakeran (Páginas de espuma, 2022) itzulpenaz ematen dituen definizioetako bat: «Itzultzea solasaldi ireki bat da, testuarekin hasten dena, obra editatu aurretik zuzentzailearekin amaitu eta irakurleekin berriro irekitzen dena». Euskal itzultzaileok (ez denek eta ez beti, baina aipatzeko moduko ehuneko esanguratsu batek bai behintzat) obraren egilearekiko interlokuzioa ere gehitu beharko genioke solasaldi ireki horri. Niri, gaztelaniara itzuli ditudan liburuetan, esango nuke inoiz ez zaidala gertatu itzulpena euskal idazlearen eskutik pasatu gabe argitaletxera zuzenean bidaltzea.¹

Ondorioz, hobe genuke, autoitzulpen ez diren euskaratik egindako itzulpenetan ere, egilearen papera guztiz aterako ez bagenu ekuaziotik, berez gutxitan egoten delako guztiz kanpo.

Itzulpen oro da proposamena

Ez dakit nirekin lan egindako guztiak emaitzarekin pozik egonen ote diren, baina ez dut uste itzultzaile temati, egoskor eta zurruna naizela esan dezaketarik. Egindakoa entregatzean, nirekin lehenago aritu ez badira, saiatzen naiz konbentzitzen nireak proposamen hutsak direla, ez naizela suminduko tonua erdietsi ez dudala esaten bazait, edo nahi beste gauza aldatu nahi baditu, nik gaztelaniaz hori gaizki esanda dagoela uste ez badut behintzat edozein aldaketa onartzeko prest bainago, hasieran. Ez da beti ongi ateratzen, agian idazleek ez nautilako beti sinesten, baina nik egiten diedan lankidetzarako proposamena zintzoa izaten da beti.

Lankidetzeta boluntario horren xede nagusia tonuarekin asmatzea izaten da. Ez dut esan nahi euskaraz idatzitako obra baten egile elebidunaren gaztelaniazko *background*ak edo berak buruan duen irakurle implizituak nireekin bat egin behar dutenik, ezta nire gaztelaniazko aurrekariak edo nik obra horri irudikatzen diodan irakurle-eredua inposatu edo abandonatu behar dudarik. Eremu horretan lehia bat egoten da bi ikuspegi linguistikoen artean, bi idiolektoen artean. Egilearena iritzi autoritadeduna da, baina ez diot horregatik arrazoa automatikoki esleitzen. Zer egin egileak esaten badizu berak jatorrizkoan osatzeko bidean irudikatu duen zaurirako ez diela egoki irizten *restañar* edo *cauterizar* aditzei? Baliteke asmatu eta niri (eta batez ere testuari) prosa purpura erortzeaz libratu izana. Edo baliteke (testuinguru horretan) *curar* edo *sanar* baino zerbaite goragoa beharrezkoa izatea, eta egileak bere egunerokoan erabiltzen (eta beharbada ezagutu ere egiten) ez dituen hitzak sartzeari beldurra izatea. Edonola ere, sinetsita nago eztabaidak beti on ekartzen diola azken emaitzari. Negoziazioa ez da bide bakarra, baina bai urrunenera daramana. Berez, itzultzailea bera aritu ohi da bere buruarekin lehian; horregatik, ez da hainbeste galtzen dialektika hori pixka bat esternalizatzen badu.

1. Hori ez da egia. Eskerrak ohartu naizen zuzenketa fasean. Itxaro Bordaren ipuin bat gaztelaniaratu nuen, aspaldi, eta ez dut gogoan hari bidali nionik. Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak* itzultzean, berriz, bai, bidali nion egindakoa eta hainbat erabakiren inguruko iritzi trukaketa izan genuela dut gogoan.

Azkenaldian, euskaratik gaztelaniara egiten ditudan itzulpenetan, lankidetzaz dialogikoaren sistema erabiltzen dut, eta, hartara, (seguruenik itzulpena irakurri eta haietan nolabait parte hartu ere nahi izango duen) egilearekiko eta baita neure buruarekiko eztabaida fasea aurreratzeko dut. Uxue Apaolazaren *Biburguneko nasa* ipuin liburuaren itzulpenarekin hasi nintzen sistematikoki erabiltzen.

Lankidetzaz dialogikoa-edo

Ez da beste munduko ezer. Itzultzen ari zarela hitz edo esaldi batean zalantzarik piztuz gero, iruzkin bat ireki (Wordeko testu prozesadorean aise egin daiteke), eta hor botatzen zer beste aukera erabili dituzun buruan. Batez ere gatazkatsua izan daitezkeen tokietan erabiltzeko moduko metodoa da, hitz edo esaldi bakoitzak salbuespenik gabe hamaika bertsio edo aukera onartuko bailituzke berez. Ez da bakarrik duda seinatzea, ongi ulertu ote duzun seguru ez zauden hori, jakina, horrelakoak ere adierazi behar baitira, eta egilearekin kontsultatu.

Apaolazarekin, liburu osoa itzultzeko epearen laburraren eraginez seguruenik, hitzartutako lan metodoak lagundu zuen. Ipuinez ipuin joan ginen, eta ez liburuko hurrenkeran, gainera. Beste toki batean esan dut «lan-metodo hori izan d[el]a gehien kostatu zaidana, aldi berean bainengoan itzulpen-estadio guztietan: itzulpen solte eta esploratorioan, neure buruaren zuzenketa eta txukuntzean, egilearekiko eztabaidan eta hirugarren pertsona baten eskuetan uztekoan».² Seguruenik horrek —«neure buruaren zuzenketa» eta «egilearekiko eztabaida» azkartu nahiak, alegia— eta nire ustez gatazkatsua ziren puntuetan fokalizatu nahiak eraman ninduten horrela aritzera.

Baina jar ditzagun adibide bat edo bi, eta, nonbaitetik hasteko, has gaitezten Jon Martin-Etxebestek artikuluan batean seinatatu duen batetik:³ «El cuerpo de la protagonista y sus sensaciones físicas [«Bizkarrez» ipuinean] son más vívidas que en el resto de los cuentos; y, de hecho, acuña conceptos como remamiferarse (“berrugaztundu”) para explicar el proceso físico y mental al que se enfrentó desde que supo que estaba embarazada». Hitz hori erdarazko itzulpenaren geniaren ordenagailuko dokumentu zaharretan bilatu, eta aurkitu dut, seguruenik ezin bestela, iruzkin bat ireki niola:

Nunca se me han subido los gemelos, nunca han manifestado semejante intención, hasta que me remamiferé, es decir, hasta que me convertí en una fábrica de leche; en eso se me va el agua tan necesaria para mi organismo.

Angel Erro 2023/3/1

Iruzkina: Remamiferé, regresé/retorné a mi esencia mamífera

2. Amelia Pérez Conde, *Estación en curva* in *31 eskutik* (2023-06-21), <https://31eskutik.eus/2023/06/21/estacion-en-curva/>. Amelia Pérez Conde liburuaren zuzentzailea izan zen.

3. Martín-Etxebeste, J. (2023). «Género, raza y clase en la novela *Estación en curva* de Uxue Apaolaza». *FEMERIS: Revista Multidisciplinar De Estudios De Género*, 8(3), 97-112, <https://doi.org/10.20318/femeris.2023.8150>.

Beste toki batzuetan, esan genezake zalantza estilistikoagoa dela; esate baterako, «Auto beltza» ipuineko adibide honetan:

Jatorrizkoa:

Gogaituta nengoen jada (plana prestatzen hain zoriontsua izan ondoren, klik, Kanarie-tako kukurutxa), kosta egiten zitzaidan gizon haren presentzia kontuan hartzea.

Itzulpen proposamena:

Ya estaba harta (después de ser tan feliz preparando el plan, clic, cochinilla de Canarias), me costaba tener en cuenta la presencia de aquel hombre.

Angel Erro 2023/2/17

Iruzkina: Reconocer? Considerar? Aceptar?

Uxue Apaolaza 2023/2/17

Iruzkina: Ez, ez, "tener en cuenta" ondo, ez zuen lortzen behar beste garrantzi ematea.

Kasu horretan, egileak, Uxuek Apaolazak, erantzuna eman zion solasaldi irekiari, nire lehen aukera –hitzez hitzekoa– hobetsita, eta horrela bete zen nik asmoan nuen eztabaida. Dena den, ezinezkoa da itzulpen batek barnean daramatzan talka posibleen prebisioa egitea; hala, nik fokua jarritako puntua erantzun gabe gelditzen zen maiz, eta eztabaida beste hitz edo esaldi batzuetara lerratzen zen. Ikus, adibidez, «Bizkarrez» ipuineko pasarte hau:

Jatorrizkoa:

Titularrek eta tertuliek gertutik jarraitzen didate haurdun geratu nintzenetik eta gehiago, askoz, ama naizenetik. Ez naizen bakoitzean azaltzen dira. Poteatzailea naizenean bereziki. Ama taberna batean ibili zen dantzan. Iritsi zenean, mozkor zantzuak zituen eta substantzia sorgogarrrien eraginpean zirudien. Dantzan hasten banaiz, zerekiko itsu ari naizen gogorarazten dit tertuliakideren batek, zer gertatzen ari da eta ni hemen dantzan?

Itzulpen proposamen iruzkinduna (2023ko martxoaren lehenekoa):

Los titulares y las tertulias me siguen de cerca desde que me quedé embarazada y más, mucho más, desde que soy madre. Se presentan cada vez que no estoy. Especialmente cuando estoy de cañas. *La madre estuvo bailando en un bar. Cuando llegó, presentaba indicios de ebriedad y parecía bajo el efecto de sustancias estupefacientes.* Si me pongo a

Angel Erro 2023/3/1

Iruzkina: Tomándome algo por ahí? De vermú? Nire arrebak vermutik hartzen ez duen arren, hala esaten du "hemos quedado para tomar el vermú". Dena den, gaueko eszena denez, de vermú edo de cañas baino, agian hobe da "de copas". Edo zaharrunoegia da?

bailar, algún contertulio me recuerda a qué soy ajena, qué es lo que está sucediendo mientras estoy aquí bailando.

Angel Erro 2023/3/1

Iruzkina: De qué soy desconocedora? Qué es lo que estoy dejando de ver? Lehen idazketan "a qué estoy ciega" nuen, baina zer edan dudan mozkortzeraino uler zitekeen eta arraro gelditzen zelakoan...

Egilearen erantzuna (2023ko martxoaren 5koa):

Los titulares y las tertulias me siguen de cerca desde que me quedé embarazada y más, mucho más, desde que soy madre. Se presentan cada vez que no estoy. Especialmente cuando estoy de cañas. *La madre estuvo bailando en un bar. Cuando llegó, presentaba indicios de ebriedad y parecía bajo el efecto de sustancias estupefacientes.* Si me pongo a bailar, algún contertulio me recuerda a qué soy ajena, qué es lo que está sucediendo mientras estoy aquí bailando.

Uxue Apaolaza 2023/3/1

Iruzkina: me pisan los talones?

Uxue Apaolaza 2023/3/1

Iruzkina: preñada

Uxue Apaolaza 2023/3/1

Iruzkina: Cada vez que no lo soy. Ama ez naizen bakoitzean.

Uxue Apaolaza 2023/3/1

Iruzkina: "y yo aquí bailando"

Azkenean, argitaratutako azken bertsoia begiratuta egiaztatu dut egileak egindako zuzenke-ta edo iradokizun guztiak sartu nituela; edo sartu genituela, esan beharko nuke. Haien artean dago nik gaizki ulertutako aditz bat («ez naizen bakoitzean» ez da «cada vez que no estoy», nik hasieran ulertu moduan). Eta ukitu edo aldatu gabe utzi nituen erantzun gabe gelditu ziren nire iruzkin edo dudak:

Estación en curvaren azken bertsoia (consonni, 2023):

Los titulares y las tertulias me pisan los talones desde que me quedé preñada y más, mucho más, desde que soy madre. Se presentan cada vez que no lo soy. Especialmente cuando estoy de cañas. *La madre había estado bailando en un bar. Cuando llegó, presentaba indicios de ebriedad y parecía bajo el efecto de sustancias estupefacientes.* Si me pongo a bailar, algún contertulio me recuerda a qué soy ajena, qué es lo que está sucediendo y yo aquí bailando.

Arestian esan bezala, harrezkeroztik, Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* gaztelaniara itzul-tzeko prozesuan abian jarritako bide hori nire lan ohituretan sartu dut, eta ondoko lan guz-tietan (euskal idazle bizidunak eta testu itzulia argitaletxera bidali aurretik gainbegiratzeko gai

direnen lan guztietan behintzat) erabili izan dut; ez hainbeste, hasieran asmo nuen bezala, auzi gatazkatsuen eztabaida lerroak bideratzeko, nola aurrez aurre dudan itzuli beharreko egileari erakusteko itzulpen guztiak proposamenak direla, elkarlanerako proposamenak, egilearen testu idealera hurbiltzeko proposamenak, zalantzaz eta ziurgabetasunez josiak berez, halabeharrak modu batera zein bestera bulkatuak, eta testuan nahi beste esku hartzeko gonbidapena egiteko. Itzulpenaren azalean (edo kredituetan), nire izena baino ez da agertuko, baina horrek ez du kentzen lan kolaboratiboa izatea askotan. Argitaletzeko zuzentzaileak azken emaitzan parte hartzen duen modu berean (eta, horregatik, haren izenak ere agertu beharko luke nonbait, zoritxarrez beti gertatzen ez den zer bait; zorionez, consonni argitaletxeak hala jokutzen du, eta proiektu honetan inplikazio handiz lan egin duen eta honen guztiaren inguruan oso ikuspegi interesgarria gehi lezakeen Amelia Pérez Conde zuzentzailearen izena agertu egiten da, merezi bezala, kredituetan), itzulpen askok euskarazko jatorrizkoaren egilearen partaidetza izaten dute gurean (eta oniritzitik haragoko forma asko bil dezake), horrek itzulpenaren egiletza auzitan jarri gabe

Horren jakitun behintzat izan beharko genuke.